



Urriaren 12an bidalitako protokoloari jarraipena emanez, ohar hauek gehitu dira:

**-Partiduak Nafarroan.** Egungo osasun egoeran partiduak jokatzeko debekatuta dago Nafarroako Foru Erkidegoan (kategoria nazionalak izan ezik) ondorioz, eta **salbuespen gisa debeku horrek iraun arte**, Beti Gazte K.J.K.E.-k eta Gure Txokoa K.K.E.-k etxean jokatu behar dituzten partida guztien ordena aldatuko da, partidu horiek aurkariaren zelaian bisitari gisa jokatuko dituztelarik. Beraz, eskatzen da beste taldeek kontuan izan dezatela partidu horiek jokatzeko ordu-tarte bat gordetzea. Bigarren itzuliko partidua Nafarroan jokatuko litzateke, osasun baldintzek uzten badute.

**-Aldagelak eta harmailetarako sarbidea.** Gogorarazten da instalazioen jabeak arduratzen direla instalazioak erabiltzeko protokoloak egiteaz eta onartzeaz. Protokolo horietan, besteak beste, aldagelen erabilera eta ikusleentzako sarbidea arautuko dira. Instalazioak kudeatzen dituzten klubei gomendatzen zaie GFFri aldagelen erabilerari eta ikusleentzako sarbideari buruzko informazioa bidal dezatela, klub guztientzako interes orokorreko datu-base bat sortzeko.

**-Epaileak.** Gerta daitezkeen gorabeherak saihesteko eta aktak egiteko lana errazteko, nahitaezkoa izango da epaile-hirukoteari (edo epaileari) aldageletarako sarbidea erraztea, nahiz eta ez den derrigorrezkoa izango dutxatzeko aukera egotea. Era berean, Epaileen Batzordeko epaile informatzailea dagoen partidetan, instalaziora sartzen utzi beharko zaio, hura identifikatu ondoren.

Donostian, 2020ko urriaren 16an